

10
arrazoi

PAGOETAKO
PARKE NATURALERA
hurbiltzeko



- 1 Zatoz Euskal Herriko Kantauri isurialdeko benetako paisaia ezagutzera**
- 2 Hurbil zaitez ondare historiko-artistikora**
- 3 Hurbil zaitez industriaurreko ondarera**
- 4 Hurbil zaitez natura eta kultura ondarera**
- 5 Hurbil zaitez oinez**
- 6 Hurbil zaitez Gipuzkoako kostaldera**
- 7 Hurbil zaitez nahi duzunean**
- 8 Hurbil zaitez gastronomia onenera**
- 9 Hurbil zaitez gustukoen duzun ostatura**
- 10 Ez zaitez hurbildu gertu zaude eta**



Pagoetako Parke Naturala

Ingurune naturalaren eta giza ingurunearen arteko oreka

Pagoetako Parke Naturala Gipuzkoako kostaldetik oso gertu dago, Donostiatik 20 kilometro eskasera, alegia. Ia azalera guztia Aiako udalerrian dago, baina beste herri batzuk ere baditu inguruan, hala nola Zarautz, Orio, Getaria, Zumaia, Aizarnazabal, Errezil eta Asteasu, besteak beste.

Egungo Pagoeta 1998ko irailaren 29an deklaratu zuten parke natural. Gipuzkoako Foru Aldundiak inguru horretan jabetzan zituen finka batzuetan du bere jatorria. Zehazki, Laurgain eta Altzolako finkek eta Iturran, Agorregi eta Bekolako enklabeek osatzen dute. Guztira, azalera babestuak 1.335 ha ditu.

Parkea ezagutzen hasteko, egokiena Iturranango Bisitarien Gunera zuzentzea da. Bertan, behar bezala informatu eta laguntzen zaio jendeari. Hortik aurrera, bakoitzak dituen lehentasunen arabera, museoen, naturaren, ondarearen edo mendi-ibilien eskaintzaren aukera egingo du.

Baina Pagoetako Parke Naturala gune mugarritu eta babestu bat baino gehiago da: kokatuta eta sakonean ezarrita dagoen lurraldearen zatietako bat da. Parkea ezin da ulertu inguruan duen lurraldea kontuan hartu gabe, eta horrek areagotzen du, agian, bere erakargarritasunaren balioa: eskualdean dagoen giza ingurunearen eta ingurune naturalaren arteko harreman estuak, alegia.

Bisitaldi zoriontsua eta bidaia ona izan.



Zatoz


Euskal Herriko Kantauri isurialdeko benetako paisaia ezagutzera

Begiratu ondo paisaia, giza jarduera tradizionalen
eta euskarri naturalaren arteko erabateko
orekaren emaitza: begientzako gozamina.

Eskualdearen erliebea osatzen duten kostaldeko muino leunen gainean, gizakiaren jarduerak paisaia mota berezi bat sortu du denboran zehar. Atlantiko aldeko nekazaritza-guneetako paisaia tipikoa da, tokiko berezitasunekin edertua: populazio sakabanatua, hirigune txikiekin, lursail txiki ugariak eta jabetzako lurren arteko palaxuen itxiturak.

Paisaia horren gakoa baserria da. Landetxe mota horretan etxea, familia eta soroa bat eginda daude. Izan ere, baserria ezin da ulertu hiru osagai horietako bat gabe. Horregatik, nekazaritzako ustiapen-unitate familiar gisa definitu izan da.

Paisaia behatuz gero, lehenik, habitata barreiatuta dagoela antzemango dugu: baserriak sakabanatuta daude. Bakoitzaren inguruan eguneroko zereginetarako erabiltzen diren lurra daude: baratza,



sega-belardiak eta larre-belardiak. Partzelak palaxuez ixten dira: zuhaixkez eta zuhaitz txikiez alegia, hegaztien espezie ugarirentzat eta ugaztun txiki askorentzat babesleku gisa ere balio dutenak. Sarritan, muga horiek zeharkatzen zituzten harrizko bide zaharrak ere antze-man daitezke.

Baserrien goialdeetan eta alden-duta, basoak eta larreak daude. Basoek etxe bakoitza egurrez hornitzeko eta eraikuntzarako zura lortzeko balio izan dute. Larreetan, berriz, ganadua bazkatzen zen, udaldian batik bat.

Bi faktorek ahalbidetu dute paisaia honek bere horretan jarraitzea: batetik, jarduera tradizional horiek duela gutxira arte mantendu izana eta, bestetik, inguru honetan Kantauri itsasoko ertzaren gainerako lekuetan baino koniferoen baso berritze gutxiago izatea.





Hurbil zaitez ondare historiko artistikora

Antzina-antzinakoak diren aztarna megalitikoetatik
Oteiza eskultoreak goretsitako Aiako frontoi modernoraino,
eskualdeko arkitektura erlijioso eta zibil aberatsa tartean dela.
Ondare monumental aberatsa, beraz.

Aztarna zaharrenak inguru horretan dauden megalitoak dira (tumu luak eta trikuharriak). Hileta-elementuak dira, artzain-kulturari dagozkionak, eta duela 5.000 urte inguru eraiki ziren.

Pagoetako tontorretan Olartetako trikuharria, Murugilgo bi tumuluak eta, beheraxeago, Urruztumeko lau tumuluak daude. Handik ez oso urruti, Sarobeberriko haitz txikiaren goialdean, beste tumulu bat dago. Eta Aiako herrigunetik gertu, Arretakoa.



Lurraldean sakabanatuta dauden baserri askok ezaugarri arkitektoniko interesgarriak dituzte. Horietako batzuk Parkean bertan daude: Iturrran, Agorregi, Almizuriberri (Amezketak-Lardi), Bekola, Sagastizabal eta, batez ere, Palazio. Azken hori estilo gotikoko jauregi bat da, XIV. mendetik geroztik eraikia, Laurgain auzoko errepidearen ondoan kokatua.

Arkitektura erlijiosoak, parrokiak-elizen monumentaltasunaz gain, ezaugarriak ere baditu: bide zaharrak mugarritzen dituzten baseliza xume eta bakarti ugariak.





Hurbil zaitez industriaurreko ondarrera

Antzina burdina nola lantzen zen ikusiko duzu,
eta neguan elurra nola gordetzen zen, ikatza nola lortzen zen,
errotek nola lan egiten zuten, karea nola egiten zen...

Duela urte asko galdutako lanbideak eta jarduerak dira, beren aztarnak lurralde honetan utzi badituzte ere: Parkean sakabanatuta, industriaurreko ondare bikaina topatuko baituzu. Elementu horietako batzuk birgaitu egin dituzte eta iraganean bezalaxe funtzionatzen dute berriro.

Agorregiko burdinola bailara sakon baten hondoan dago. Ibaietako indar hidraulikoaz baliatzen zen bere hauspo handiak eta gabia mugitzeko. Inguruan dituen errotek berbera egiten zuten beren ehotze-turbinak biratzeko.

Errota gehiago daude ibaian behera. Beren funtzionamendua interpreta daiteke ere.

Parkearen gainerako lekuetatik sakabanatuta, industriaurreko gure historia xumearen beste elementu batzuk daude. Horien artean elurzuloak dira nabarmentzekoak, antzina neguko elurra biltzeko erabiltzen zirenak bero handiagoko garaietan merkaturatzeko. Sagastizabal baserritik gertu dago bat, orain Pagoetara bisitan datozen ikasle taldeentzat Natur Gela gisa erabiltzen dena; eta Lizartxoetako lepoaren inguruetan beste bi daude: Nebera txikia eta Nebera haundia deitzen zaie. Azkena ikustea merezi du, neurriak izugarri handiak dituelako.





Agorregiko Burdinola eta errotak

Oraingo Agorregiko burdinola Laurgain jauregiko jaunak eraiki zuen 1754an, aurretik izandako burdinola baten hondakinen gainean. Francisco Ibero arkitektoa arduratu zen proiektuaz.

Kokaleku zoragarri batean dago, hariztiez eta pagadiez inguratuta. Izan ere, burdina urtzeko egur-ikatzaz lortzen zuten zuhaitz horietatik.

Oso sistema hidrauliko landuak erabateko etekina ateratzen zuen ibai-arroaren baliabide hidrauliko urrietatik, eta 2 kilometroko luzera zuen kanal-sistemari esker iristen ziren ibaiko urak burdinolara. Gainera, ur-biltegi bikoitza erantsi zitzaion.

Urak, burdinolara iritsi ondoren eta ur-biltegi desberdinetan banatuta, multzo hidraulikoa osatzen zuten engranajeak jartzen zituen martxan: burdinolako hauspoak eta mazona, eta goiko eta beheko erroten ehotzeko harriak, alegia.

Ikatz minerala erabiltzen zuten Labe Garaien lehia gogorak eraginda, burdinola hau eta Gipuzkoako beste batzuk itxi egin behar izan zituzten.

Agorregiko burdinola eta errotak Iturraran Parketxetik gertu daude. Gunera iristeko, oinez joango gara Iturrarango aparkalekutik ateratzen diren bidexketatik (koordenatuak: X 568369, Y 4789093) edo Manterola baserriaren inguruan dagoen bidetik (koordenatuak: X 569108, Y 4789747).

AGORREGIKO ORDUTEGIA

IREKIA

Aste Santua

Martxotik ekainera:

Igande eta jaiegunetan.

Uztaila eta iraila:

Larunbat, igande eta jaiegunetan.

Abuztua:

Ostegunetik igandera.

Urriaren 1etik abenduaren 8ra arte:

Igande eta jaiegunetan.

Irekia dagoenean, 11:00etatik 13:00etarako ordutegia dauka. Bisitaldi gidatua 11:30etan da beti. Bisitaldian zehar burdinola eta errotak martxan jartzen dira.

ITXITA

Abenduaren 9tik otsailaren 28ra arte.

Abuztuaren 10a.



Harremanetarako: 943 83 53 89
iturraran@gipuzkoamendizmendi.net



Hurbil zaitez natura eta kultura ondarrera

Aiako herrian kokatua, Gipuzkoaren erdi-erdian eta Zarautzetik oso gertu, Pagoetako Parke Naturalak natura eta kultura ondare aberatsa eskaintzen du.

Pagoetak animalia espezie ugari hartzen ditu. Ingurugiro ugari dituenaz, aske bizi diren animalia espezie ugari daude parkean, Euskal Herrian galbidean dauden zenbait barne. Sai zuria, muxar grisa, belatz handia, erlastar europarra, suge europarra, Betizu behiak edo Pottoka zaldiak horietako zenbait dira eta ikusi ahal izango dituzu parkean zeharreko zure ibilbidean.

Atlantikoko mendixketako fauna komunitate bitxiaren beste espezie ugariak Pagoetan aurkitu dute beren babeslekua: orkatzak, basurdeak, erbiak, bai eta urte-rik urtera Afrikatik hegaz etorri eta udaberri aldera bere kabia Pagoetan jartzen duen sai zuri bikote bat ere.

700 metro inguruko gehieneko altuera duela, bertako zuhaitzen multzo handiak hartzen ditu ere: haritzak, pagoak, urkiak, arteak, haltzak, gorostiak, etab. Horiez gain, kanpoko espezieak hartzen ditu ere: Japoniako laritza, Douglaseko izeia eta Lawsonen altzifrea. Zuhaitz batzuk interes handikoak dira: Beorbarrutiko eta Arkumelarreko haginak edo Elutsaundiko pagadia.

Landaretza Kantauri ekialdeko eskualdeak berezkoa duena da.

Nabarmentzekoa da Iturrran Parkekoa inguratzen duen Lorategi Botanikoa. 5.500 espezie-rik gora, 8 eremu ezberdinetan.





Iturraran Parketxea

Baserria baino askoz gehiago

ITURRARAN BASERRIA

Iturraran Parke Naturalaren informazio-zentroa da. Espazio honetan tailer eta jarduera ezberdinak antolatzen dira urte osoan zehar. Ingurumen heziketari buruzkoak, jarduerak ikasleentzat, antolatutako taldeentzat zein bisitari orokorrentzat dira. Aipatu jarduerak gai ezberdinak jorratzen dituzte: Pagoetako ekosistemak, landaredia, fauna, Geologia, iraganeko lanbideak, etab. Jarduera horiei esker, bisitariak naturaren eta giza jardueren arteko orekaren berri izango du.

Iturraran Parketxeak XVIII. mendeko jatorrizko zurezko egitura mantentzen du. Osagai bitxiak ikus daitezke oraindik: zurezko armazioan grabatutako zenbaki erromatarak, muntatze- eta eraikitze-ordena zehazten zituztenak, zutabetan sarturiko itsulapiko sekretuak, sagardo dolarearen aztarnak, etab. Pagoetako ingurune fisiko eta etnografikoaren inguruko erakusketa iraunkorra eskaintzen du ere, bai eta zenbait euskarri elkarreragile eta tailer didaktiko bat ere.

LORATEGI BOTANIKOA

Bere klima gozoari esker, baserria lorategi botaniko batez inguratuta dago, non mundu osoko -eskualde bero zein hotzetakoak- zuhaitzak eta zuhaixkak landatuta dauden: Mediterraneokoak, koniferoak, hariztiko oihanpea, bertako belaze eta zuhaitzak. Zuhaitz guztiek identifikazio-etiketak daramatzate, beren izena eta jatorrizko eskualdeekin.

Euskal Herrian galbidean dauden landareak hartzen ditu ere, beren kontserbazioa bermatu nahian.

Lorategiko landatzeak 1986ko neguan hasi ziren eta bildumak espezie berriak jasotzen ditu urtetik urtera. Gipuzkoako Foru Aldundia da jabea eta mantentzea Nekazaritza eta Ingurumen Sailaren ardura da.

Bidexka erraz ezberdinak daude Iberiar Penintsulako aberastenen artean dagoen lorategi botaniko hau bisitatzeko.

Lorategiaren ulermena errazteko helburuarekin, berezko ezaugarriak dituzten 8 eremu handitan banatuta dago:

Haritzen, Astigarren, Mimosen, Mediterraneoko Landareen, Zumarren eta Intxaurrondoan, Mitreen, Gereziendoen eta Palmondoan, Txilarren eta Koniferoen bildumak.

ORDUTEGIA

BEHE DENBORALDIA urritik ekainera (biak barne)

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara.

Aurretik ordua eskatu duten taldeek lehentasuna izango dute.

Larunbat, igande, jaiegun eta zubitán: 10:00etatik 14:00etara.

GOI DENBORALDIA uztaila, abuztua eta iraila

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 18:30etara.

Larunbat, igande, jaiegun eta zubitán: 10:00etatik 14:00etara.

SARRERA: Helduak: 1 € • Haurrak (5-12 urte): 0,50 €

OHARRA: informazioa doakoa da. Sarrera erakusketako ikusteko ordainduko da bakarrik.

HARREMANETARAKO: Koordinatuak: X-568369, Y-4789093

Tel: 943 83 53 89 • iturarran@gipuzkoamendizmendi.net

www.parketxesarea.org

www.aiapagoeta.com

www.gipuzkoamendizmendi.net

Landare Berezien Azoka:

2003. urtetik aurrera, Iturrango Lorategi botanikoak landare berezien azoka antolatzen du apirileko azken aste-buruan. Gure inguruan bitxiak izanda bildumazaleen artean oso preziatuak diren landareak agertzea da azokaren xedea. Ekitaldi paregabean da mundu botanikoaren inguruko ezagutzan sakondu eta lorategietan ikusgai dauden landare bitxi eta arraro horiek eskuratzeko.

ITURRARANGO ERLATEGIA

Iturraran Parketxetik gertu eta helburu didaktikoekin, erlategi bat eraiki da. Bertan, bisitaldi gidatuen bidez, erlategien egitura eta antolakuntza ikus daitezke, erleen jarduera zuzenean ikusiz.

Iturraranen Euskal Herriko erle beltza daukagu. Landatar erle horrek ekoizpen erregularra dauka, arreta gutxi eskatzen ditu eta funtsezkoa da ekosistemaren kontserbaziorako.

Erle beltza gure ekosistemetako polinizatzaile nagusia da eta, ondorioz, funtsezkoa da beren kontserbazioa eta hedapenerako.

Bisitaldi gidatuak erlategira

Aste Santuan eta udako asteburuetan, 13:00etan

Talde eta eskolentzako bisitaldiak, ordua eskatu aurretik.



Hurbil zaitez oinez

Bide horietako batzuek Parkea zeharkatzen dute edo bertan sartzen dira gertuko herrietatik abiatuta. Beste batzuk askoz ere leku urrunagoetatik iristen dira eta zeharkatu egiten dute Parkea beren ibilbidea beste eskualde batzuetatik jarraitzeko.

Ordea, guztiek ematen dute aukera segurtasunez ibiltzeko eta aurkikuntza txikiak egiteko, paisaia berriak ezagutzeko eta natura preziatzeko.

BIDEAK

Parkean daudenak *

- SL Gi 4001:** Agorregi: burdina eta ura
 - SL Gi 4002:** Faunaren ibilbidea
 - PR Gi 4001:** Pagoetako Itzulua
 - PR Gi 4002:** Pagoetako Gurutzea
- Neberako Lizarra – Sarrola lotura**

Parkearen inguruan daudenak *

- GR - 121:** Talaia Bidea: Hondarribia - Mutriku
- PR - Gi-84:** Aia - Iturrioz - Zelatun
- PR - Gi-158:** Itxaspe (Orio)
- PR - Gi-40:** Aizarna - Santa Engrazia (Zestoa)
- GR - 35:** Transhumantzia bideak

* Mendi Federazioak homologatutako bideak





Parkea ezagutzeko gomendatzen ditugun bost bidexkak

• SL Gi 4001 - Agorregi: burdina eta ura

IRAUPENA	1:30 – 2h.
ZAILTASUNA	Ertaina - baxua
LUZERA	3,5 Km.
PUNTURIK ALTUENA	200 m / i.m.g.
PUNTURIK BAXUENA	50 m / i.m.g.
KOKAPENA	PAGOETAKO PARKE NATURALEKO lurak
IRTEERA	Iturrrango aparkalekua

Oso ibilbide egokia da familientzako zein denbora gutxi edukita parkearen interesguneak bisitatzeko grina duten ibiltarientzat.

Lorategi Botanikoa zeharkatuz -7. gunea-, Agorregiko burdinolara jaitsiko gara; handik, haranaren hondotik, Manterolaraino iritsiko gara, errota interesgarriak ikusiz.

Bidexkak gora egiten du berriz ere eta Iturrran Baserritik gertu dagoen lorategi botanikoaren beste eremu bat igaroz -7. gunea-, abiapuntura iritsiko gara.

Ibilbidean zehar, haranean behera itsasorantz doazen erreken ertzetan hazten den urertzeko landaredia ikusiko dugu. Espezie nagusiak heze-tasun handiko zoruetara egokitu diren horiek dira: haltzak, lizarra, zumar hostotxikia eta intsusa edo sahats iluna bezalako zuhaixkak.

• SL Gi 4002 - Faunaren ibilbidea

IRAUPENA	2 – 2:30h.
ZAILTASUNA	Ertaina - baxua
LUZERA	6,5 Km.
PUNTURIK ALTUENA	200 m / i.m.g.
PUNTURIK BAXUENA	50 m / i.m.g.
KOKAPENA	PAGOETAKO PARKE NATURALEKO lurak
IRTEERA	Lukungo aparkalekua

Ibilbide oso egokia Pagoetako fauna eta baserriak ezagutu nahi dituzten familia eta ibiltarientzat.

Largain auzora igoko gara poliki-poliki, Lardizabal jaun/andreen otoi-leku zen gurutze ospetsuraino. Igotzen jarraituz gero, Sarriola baserriraino iritsiko gara. Bere borda eta itxituretan pottokak eta betizuak ikusi eta Parkeko animalien inguruan sakontzeko aukera izango dugu.

Ondoren, Sarriola erreka gurutzatu eta Orbelaun baserrira igoko gara. Ibilbidearen hasiera izan den aparkalekutik oso gertu dago.

Arretaz beha itzazu ibilbide honetako landare eta animaliak. Espezie bereziak ikusiko dituzu.



• PR Gi 4001 - Pagoetako Itzulia

IRAUPENA	6h.
ZAILITASUNA	Ertaina
LUZERA	17 Km.
PUNTURIK ALTUENA	700 m / i.m.g.
PUNTURIK BAXUENA	300 m / i.m.g.
KOKAPENA	PAGOETAKO PARKE
	NATURALEKO lurrak
IRTEERA	AIAko aparkalekua

Ibilbide honek Pagoeta mendia inguratzen du. Interes handia dauka paisaia eta kulturaren ikuspuntutik.

Ibilbidea hasi eta gutxira Burnigurutze burdin-eko gurutzea ikusiko dugu. Azkorte-haitzeko faila, Sagastizabalgo elurtegia, Beorbarrutiko hagina eta Elutsaundiko pagadi bikaina ikusiko ditugu ondoren, Lizarbazarreko bidegurutzera iritsi arte.

Altzola auzora bidean beste bi elurtegi ikusiko ditugu. Bertan, Pagoeta mendia inguratzen duen bidetik jarraituko dugu. Parke osoaren ikuspegi ederrak eskaintzen ditu.

Azken zatia transhumantzia bide zaharretik doa, Aiara iritsi arte. Errepidearekiko paralelo dagoen bidea jarraituz, abiapuntura iritsiko gara.

• PR Gi 4002 - Pagoetako Gurutzea

IRAUPENA	1:35h.
ZAILITASUNA	Ertaina - baxua
LUZERA	5,9 Km.
PUNTURIK ALTUENA	674 m / i.m.g.
PUNTURIK BAXUENA	312 m / i.m.g.
KOKAPENA	PAGOETAKO PARKE
	NATURALA
IRTEERA	Urdaneta auzoa

Bidexka honek Urdaneta auzoa eta Aiako erdigunea lotzen ditu, aipatuaren ikuspegi ezberdinak eskainiz. Bisitariak paisaiatzeko aukera izango du.

• Neberako Lizarra – Sarrola LOTURA

IRAUPENA	40 minutu
ZAILITASUNA	Ertaina - baxua
LUZERA	1,6 Km.
PUNTURIK ALTUENA	240 m / i.m.g.
PUNTURIK BAXUENA	515 m / i.m.g.

Lotura honek PR-Gi 4001 eta SL-Gi 4002 ibilbideak batzen ditu.



NOLA IRITSI

Zudugaraiko Gainean (Orioko Gaina deitua ere), Zarautz eta Orioren arteko N-634 errepidea utzi eta GI-2631a hartu, Aia-Villabona noranzkoan.

4 Km egin aipatuan, "Iturraran Parketxea" seinalearekin topo egin arte.

Bi aparkaleku ditu: autobusentzako aparkalekua sarreran; autoentzako bestea 300 m aurrerago dago.

Bigarren aparkaleku horren 150 m-ra "Iturraran Parketxea" dago.

Informazioko "I" seinaleari jarraitu.



GARRAIO PUBLIKOA

www.lurraldebus.eus

www.euskotren.eus





Hurbil zaitez



Gipuzkoako kostaldera

eta goza ezazu aisia- eta kultura-eskaintza
zabalaz. Ibilaldi ahaztezinak itsasertzetik,
kirol- eta kultura-jarduerak edo harea fineko
bertako hondartzetako atsedenaldia.



Aukera horiekin eta beste hainbatekin
gozatuko duzu Pagoetako Parke Natu-
ralaren mugakide diren herri horieta-
koren batera hurbilduz gero.

Golfa, mendi-ibiliak, urpekaritza,
itsaspeko arrantza, eskalada, hipika,
paseoak yatean, atunaren arrantza,
ibilaldiak zaldiz, tenisa, parapen-
tea, esku-pilotako partidak ikusteko
edo parte hartzeko aukera, surfa eta

aisialdi aktiboko antzeko jarduerak
eskaintzen ditu eskualde honek.

Pagoetako Parke Naturaletik gertu
dauden hondartza handiek, itsaslabar
izugarriek, alde zahar interesgarriek
eta eraikin adierazgarriek Urola Kos-
tako eskualdea osatzen dute, Kantauri
Itsasoak bustita edertasun paregabea
eskaintzen digun kostaldea.



Getaria



Marinel-tradizioa duen herri honetako alde zaharrean San Xalbador Eliza nabarmentzen da.

Herrigunearen inguruan txakolina egiteko mahasti ugari ikus daiteke. Eremu horiek zeharkatzen ditu, hain zuzen, Azkizuko galtzadak, bisitatzea merezi duenak.

Orio



Orio, herri arrantzalea, ibaiak itsasoarekin bat egiten duen gunean dago, mendien magalean. Aipagarriak dira Alde Zaharra, arraun estropadak, Bisiguaren Festa eta kostako Done Jakue Bidearen zatia.

Zarautz



Hondartzan zehar ezarritako herri honek eskaintza turistikoa oso zabala du, baita garrantzizko erreferentzia historikoa ere bertako eraikin adierazgarrien bitartez: Dorre Luzea, Narros Jauregia...

Aia



Landa-eremuko udalerrri hau baserriez eta basoez inguratuta dago. Bertan, XVI. mendeko eliza zoragarri bat topatuko dugu, Aizpeako basiliza, eta santutxoa. Udalerrri honetan dago Pagoetako Parke Naturala.

Zumaia



Urola ibaiaren bokalean ezarrita dagoen herri honek hondartzak, itsaslabar ikusgarriak eta kirol-portu bat ditu.

Horiez gain, Erdi Aroko trazadura duen alde zaharra du, baita museo interesagarriak ere, hala nola Ignacio Zuloaga pintorearena.

Hurbil zaitez nahi duzunean

Hamaika arrazoi daude Pagoetako Parke Naturala bisitatzeko, urtaroa edozein izanik ere; Kantauriko paisaia paregabea, bertako jendea, urtaro guztietan dagoen klima epela eta bere kokaleku hobeazina.

Kantauri aldeko klima epela da. Itsasoaren eraginpean dagoenez, tenperaturak leundu egiten dira neguan zein udan. Hilabete hotzenetan ia ez da 0° C azpiko tenperaturarik izaten. Eta udaldian tenperaturak atsegina izaten jarraitzen du, bero handiegirik gabe, eta horrek aukera ematen du eguzkiaz eta itsasoaz inolako eragozpenik gabe gozatzeko.

Gainera, kultura-jardueren eskaintza oso zabala da, udaldian bereziki: antzerkiak, filmak, erakusketak, nazioarteko eskultura-eta zeramika-lehiaketak, herriko jaiak, golf-lehiaketak eta abar.





Hurbil zaitez gastronomia onena ezagutzera

eta dasta ezazu gure lurrraren benetako zaporea.
Murgil zaitez ahogozoa utziko dizuten zapore ugariko itsasoan.

Euskal sukaldaritzak munduan zehar hedatua du bere izen ona eta ospea. Inolako zalan-tzarik gabe, arrakasta horren arrazoa produktuen kalitatean dago, batik bat sasoiko produktuean, baita plateren eskaintza zabalean eta etxeetako eta gastronomia-elkarteetako su zaharretatik datorkigun tradizio luzean ere.

Marinel-tradizio handia duenez, arraina modu askotara prestatu ohi da: besteak beste, legatza saltsa berdean, txipiroiak beren tintan eta "Pelaio" erara, sardina erreak, bisigua edo txitxarroa parrillan, bakailaoa pil-pilean, txangurroa...

Gainera, bertako labelak ziurtatzen duen kalitate goreneko haragia dasta dezakegu.

Eskualde honetan "miniaturazko sukaldaritza" deitzen zaion horrekin ere gozatu dezakegu. Tabernetako barrak pintxo ugariz apainduta egon ohi dira. Benetako tentazioa, batik bat txakolinaz lagunduta. Jatorrizko deiturako ardoa dugu hau, gure mendi-hegaletan hazten dena. Txakolinak kalitate nabarmena eta harrera ona lortu ditu, fruta-usaineko ardo zuria baita, 10 eta 11º artekoa, txinpartaduna.

Artzaintzari estuki lotua dagoen lurralde batean, ardi, behi eta ahuntz gazta-mota asko ekoizten dira inguruan. Horietako askoren errezeta aintzinetik dator.





Hurbil zaitez gustukoen duzun ostatura

Pertsona bakoitzari bidaiatzeko modu bat
dagokiolako, gustu, lagun kopuru, aurrekontu
eta abarren arabera eskaintzen diren
ostatu-aukerak oso ugariak dira.

Hondartzetatik gertu dauden hotelak,
hiriko bizitzak eskaintzen duen ero-
sotasun handiari etekina ateratzeko,
alokatzeko diren oporretarako etxe-
bizitzak, naturaz gozatzeko aukera
eskaintzen duten kanpinak, kutsu

tradizional nabaria duten landa-turis-
moak nekazaritzaz eta abeltzaintzaz
gozatzeko, pentsioak eta ostatuak
dira eskualde honek bisitariei eta
turistei harrera egiteko eskaintzen
dizkien aukerak.





Ez zaitez hurbildu gertu zaude-eta

Nonahi egon arren, ziurrenez ez duzu denbora gehiegirik
behar izango Pagoetako Parke Naturalera hurbiltzeko.

Oso komunikabide egokiak ditu errepi-
dez, hegazkinez edo trenbidez. Beraz,
azkar hurbilduko zara eskualdera.

Harritu egin al zara? Begiratu zure hiriko
erdigunetik Pagoetako Parke Naturale-
raino dauden adibide batzuk:

Donostiatik:

20 minutu - 25 Km.

Bilbotik:

60 minutu - 90 Km.

Gasteizetik:

60 minutu - 90 Km.

Biarritzetik:

45 minutu - 70 Km.

Iruñatik:

60 minutu - 90 Km.



Informazio interesgarria

ITURRARAN PARKETXEA - PAGOETAKO PARKE NATURALA

Informazioa eta erreserbak

iturran@gipuzkoamendizmendi.net

943 83 53 89

www.aiapagoeta.com

www.parketxesarea.org

www.gipuzkoamendizmendi.net

Turismo Bulegoak

Getaria	943 14 09 57
Orio	943 83 55 65
Zarautz	943 83 09 90
Aia	943 13 11 44
Zumaia	943 14 33 96

Interneteko helbideak

www.getariaturismo.eus
www.turismo.orio.eus
www.turismozarautz.eus
www.aiapagoeta.com
www.zumaia.eus

www.costavasca.org

Argazkiak: José Luis Iturburu, Fernando Maiztegi, Jesus Uriarte, Javier Carballo, Txema Fernández, Fermin Etxeberria, Kiñuka, Aran Aldai, Joseba Sanchez, Ramon Lizeaga, Gorka Bikuña, Joan Ballester, Iruñe Aldai, Tolin, Edurne Irigoien, Paisajes Españoles, Pagoetako Parke Naturala, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia Udaletako Agiritegiak, Zarautzeko Turismo Bulegoa.

Testuak: Imanol Goikoetxea, Arreta Pagoeta.

Egilea, diseinua eta maketazioa: Testa Publicidad.





Kostaldea - Costa Vasca - Basque Coast - Côte Basque



www.kostaldea.eu



Gipuzkoako Parketxeak

GPS FUNDATZIOA



EUSKADI
BASQUE COUNTRY